

# noaua

**6.500 etxeetara iritsi dira  
Errigoraren produktuak**

**Erauntsien ondoren  
urak bere bidera  
buelatu dira**

**Asteburu honetan,  
Dantza Eguna**



**Ekainaren 10eko giza-katean  
hartuko dute parte, eta zuk?**

**Ni banao.  
Eta zu bazatoz?**  
Giza katea

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



# udajolas

2018  
udaleku irekiak

Udajolas Usurbilen erroldatutako 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gazte-txoei zuzendua dago. Uztailaren 3an hasi eta 27an amaituko da eta ordutegi hau izango du: 09:30-13:30

Gehienezko plaza kopurua 200 umekoa izango da.

Ordainketa LABORAL KUTXAKo kontu honetan egin behar da, eta garrantzitsua da **HAURRAREN IZEN-ABIZENAK** adieraztea:

3035 0140 34 1400025811

Izen emateko epea:

**apirilaren 20tik maiatzaren 3ra** (biak barne)

Lekua: Noaua!ren egoitzan (Bordaberri kalea 3)

Izen emateko ordutegia: **10:00-11:00 eta 16:00-18:00** (larunbatean itxita)

Kuota: 83€

Famili ugaria: 67€ (Familia Ugariaren Txartela edo Familia Liburuaren kopia ekarri behar da).

**Aurkeztu beharrekoa: Izen-emate orria, ordainketa-agiria eta gizarte segurantzako txartelaren kopia.**

Udajolaseko guraso bilera **ekainaren 14an** (osteguna) izango da Sutegiko auditorioan, arratsaldeko **17:00etan**.

**OHARRA:** Behin izena eman ondoren, ez da dirurik itzuliko.

**noqua**



## Albiste iruditan

# Usurbilgo herriak ekainaren 16an omenduko du Joxean Artze

**M**artxoaz geroztik herri omenaldia prestatzen ari zaion bilguneak apirilaren 10ean Potxoenean eginiko bigarren bilkuran, urtarrilaren 12an zendu zen Joxean Artze omentzeko eguna finkatu zuen. Ekaineko hirugarren larunbatean, ekainaren 16an omenduko du Usurbilgo herriak sortzaila handia. Dagoeneko egun horretako egitaraua josten hasiak dira, irekia den batzorde honetan parte hartzen ari diren herritarrak. Hitzorduak, poesia, txalaparta, eta musika izango ditu osagai nagusi.

Abian duten lanketari apirilaren 23an emango diote segida, 18:30etan Potxoenean deitu duten hirugarren bilera irekian. Edonork bertaratu eta parte har dezake antolaketa lanetan.

### Omenaldia San Telmon

Maiatzaren 20ra arte 2016ko ekainean Potxoenean izan genuen "Ikimilikiliklik, J.A. Artzeren unibertsoa" erakusketa



Apirilaren 23an berriro batuko da lan-batzordea. Potxoenean elkartuko dira, 18:30ean.

bisitatzeko aukera izango duzue Donostiako San Telmo Museoko Laborategian; asteartetik igandera, 10:00-20:00 artean. Sarrera doakoa izango da. Artzek 40 urte baino gehiagoan zehar garatutako lan

poetikoan murgiltzeko aukera eskaintzen duen erakusketa honen baitan, sortzaila usurbildarra omenduko dute apirilaren 24an 20:00etan. Informazio gehiago: santelmomuseoa.eus

## Laburrean

### Batzarra Erroizpe elkarteak

Txokoaldeko Erroizpe elkarteak urteroko bazkideen batzar nagusia deitu du igande honetarako, apirilaren 22rako. Lehenengo deialdia goizeko 11:00etarako finkatu dute, bigarrena ordu erdi beranduagorako, 11:30erako.

### KzGuneko ikastaroak

- Apirilak 24-25, 09:00-11:00: "Eusko Jaurlaritza zure mugikorrean".
  - Apirilak 26-27, 09:00-11:00: "Bapateko mezularitza zure Smartphone bidez".
- Informazio gehiago: Kale Nagusia, 37. 943 023 684.

### Furgobaratza Agerreazpin

Aholkularitza zerbitzua eskaini ohi duen Furgobaratza Agerreazpiko udal baratzteen parkera itzuliko da hurrengo astelehenean, hilak 23. "Tomatearen tailerra" egingo da 18:00-19:30 artean. Informazio gehiago: ekogunea.eus / baratzeparkea.ekogunea.eus

# noaqua

Kultur Elkarteak

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus  
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkariko koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaqua.eus

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzioa@noaqua.eus:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,  
Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria


Jesus Urbietia, Maddi Galbete,  
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,  
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
ISSN: 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

## Atzera kontaketa martxan

**L**eihoa ireki edo balkoira atera eta zuetako hainbatek parez pare ikusi ahal duzue, muturraren aurrean, errauts eta gas toxikoz ingurunea josi dezakeen errauste planta nola ari diren eraikitzen. Atzera kontaketa betean gara.

Obrei muturra zenbat eta gehiago ikusi, lanak amaierara heltzeko orduan eta gutxiago faltako den seinale. Milaka gipuzkoarrek urte luzez eskatutakoari, mediku eta ikerlarien alert mezuei jaramonik egin gabe, haiei bizkar eman ez ari dira eraikitzen, teoriarik, urtebete barru, amaituta eta martxan egotea aurreikusuten duten planta. 2019ko udal eta foru hauteskundeetan testuinguru betean

gerta daiteke hori guztia.

Atzera bueltarik ez dagoela dirudien egunotan, ez dago soberan, erraustegia geratu ahal izateko oztopo guztiak gainditu zireneko garaiaz oroitzea. Ezinezkoa zirudiena errealitate bilakatu baitzuten; gipuzkoarren osasuna kalte-tetu, eta poltsikoetako dirua xahutuko zuen erraustegiko lanak geratzea. Eta herriak eskatutakoa betetzeagatik epaitu dituzte egunotan, orduko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko (GHK) lehendakari Ainhoa Intxarraundietak eta foru ingurumen diputatu Iñaki Errazkin.

Behin erraustegia geratzea lortu zela ezin da ahaztu noski, ezta herritarren osasun eta poltsikoak defendatzeak bizi osorako zigorraren mehatxua dakarrela, egunotan ikusten

ari garen moduan. Ainhoa eta Iñakiri babes adierazteko #DenokGaraAinhoaEtaIñakitraola baliatu da egunotan, traola ezin egokiagoa. Denok epaitu baikaituzte, erraustegiaren beharrik izan ez eta alternatiba osasuntsu, jasangarri eta merkeagoen aldeko apustua egin nahi dugun guztiok. Hamarkada batetik gora, mobilizazio eta dinamika ezberdinak sustatu eta plazaratu dituztenak, nahiz ekimen guztiotan parte hartu dutenak.

Eta ezin ahaztu, “denok” horretatik salbuetsiak gertatzen direla gutxi batzuk. Gutxi batzuk bai. Erraustegia eta halako proiektu kutsakor eta kaltegarriak, herritarren bizkar gauzatu nahi dituzten gutxi horiek. Ainhoa eta Iñaki salatu dituztenak, milaka gi-

puzkoar salatu gaituztenak.

“Angula ustelak” hitzaldi biran, argi zioen Intxaurrandietak, epaiketa honekin zer nolako mezua helarazi nahi zaigun. Ukiezinak egin nahi dituzte, “estrategikotzat” dituzten azpiegiturak. Teorian gu ordezkatzeko gaituzten haiek egin, eta guk isilik irentsi. Hitza hartzeko une erabakigarrietako bat urtebete barru helduko da, 2019ko maiatzeko udal eta foru hauteskundeetan. Eta hautu argi bat egiteko aukera ederra izango dugu; erraustegia irentsiarazi nahi digutenei edo erraustegia geratu nahi dutenak babestea. Atzera kontaketa honetan ere, ez genuke inoiz ahaztu behar; azken hitza herritarrok dugu beti.

Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | **Aritz Gorriti** | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

## Jaietan egiten den animalien erabilera, “Gurean” dokumentalaren erdigunean

Azken lau urteotan, ezkutuan, inoiz egin duen informazio biltaketa handiena plazaratzen hasi da herriz herri Askekintza, animalien askapena helburu duen Gipuzkoako kolektiboa. Aipatu moduan, azken lau urteotan, Euskal Herri luze zabaleko jaietan grabaturiko irudiekin “Gurean” dokumentala grabatu dute. Martxoan amaieran estreinatu zuten Donostian.

Ikus-entzunezko lan honek, Euskal Herriko hainbat jaietan

egiten den animalien erabilera biltzen du. Zehazkiago esanda, 30 herrietako irudiak ikus daitezke. Tartean, aurrerapen moduan Youtuben argitara eman duten bideoan ikus daitekeenez, baita Usurbilgo Santixabeletakoak ere; jaietan ospatu izan den idi-dema eta “Gorritiren show”-ekoak hain zuzen.

“Dokumentazio horrek argi erakusten du festetan gainontzeko animaliak haien borondatearen kontra erabiltzen direla, eta

izugarria dela sufrizten duten zapalkuntza”, dio Askekintzak. Injustutzat eta lotsagarritzat jotzen dute horrelako praktikak onartu “eta gure pribilegioak erabiliz, gizakiok beste animaliak esplotatzen jarraitzea”.

### Gogoeta sustatu nahian

Egileen esanetan, dokumentalaren helburua, tradizio hauek zalantzan jarri eta gai honi buruzko gogoeta eta eztabaida sustatzea dira. “Bada

garaia festak guztiontzat, beste animaliak errespetatuz eta berdintasunean ospatzeko”, nabarmentzen dute. Tradizio hainbat eraldatu eta aldarri honenkin bat egitera deitzen dituzte eragile eta erakundeak.

Dagoeneko hainbat atxikimendu bildu dituzte, besteak beste, Bilboko Konpartsarena, Donostiako Piratena, animalien eskubideen aldeko hainbat bilgunerena edota zenbait sindikaturena.

# Presoen eskubideen aldeko Bilboko manifestaziorako bus zerbitzua

**K**alera Kalera dinamikak euskal preso politikoen eskubideen aldeko manifestazio nazionala deitu du larunbaterako (apirilak 21) Bilbon, “Bada garaia! Presoak kalera. Konponbidea, bakea, askatasuna” aldarripean. 17:30etan abiatuko da Kasillatik. Hara joateko autobus zerbitzua antolatu da Usurbilen. Ohiko tokietan eman ahalko duzue izena aurrez. Autobus zerbitzua 15:15 aldera abiatuko da Oiardo Kiroldegi paretik.

Manifestazioa, apirilaren 17ko Preso Politikoen Nazioarteko Egunaren testuinguruan antolatu dute. “Presoak kalera atera behar ditugu, eta hori lortu bitartean ez dugu ahaztu behar presoek premiazko hainbat gai dituztela, konpondu beharrekoak eta lehentasunezkoak. Horiek berehalako erantzuna behar dute”, zioten Kalera Kalera dinamikako ordezkariak manifestazio honen eta egunotarako deitu dituzten ekimenak aurkeztu zituztenez.

## Lehen gradua eteteko eskaera

Azken aldian eman diren hainbat aurrerapauso nabarmentzen ditu Kalera Kalerak. Frantziar espetxeetan diren hainbat euskal preso Montde-Marsan kartzelara hurbiltzeko Ipar Euskal Herriko herritarren ordezkariak anitzak izan duen paper erabakigarria



“Bada garaia! Presoak kalera. Konponbidea, bakea, askatasuna” lemapean antolatu dute larunbat honetako manifestazioa. 17:30ean abiatuko da Bilboko Kasillatik.

## LARUNBATEAN, BILBON

**“Presoek premiazko hainbat gai dituzte, konpondu beharrekoak eta lehentasunezkoak. Horiek berehalako erantzuna behar dute”**

nabarmetzen du Kalera Kalearak. “Hego Euskal Herrian urrats mantso baina irmoak egiten ari dira gatazkaren ondorioei konponbideak bilatzeko”, gaineratzen dute. EAE-ko eta Nafarroako parlamentuek erdietsitako akordioak aipatzen dituzte adibide gisa. Premiazko gaitan, sakabanaketa-rekin amaitu eta preso gaixoak askatzeari dagokionean, adostasun zabala badagoela nabarmentzen dute. Aipatzen dute baita, Ipar Euskal Herriko ordezkariak zabalak eta Hegoal-

deko Foro Sozial Iraunkorra harremanetan direla EPPK-rekin, gainerako eragileekin euskal preso politikoen ikuspuntua landu eta adostasunetara heltzeko.

Aurrera begira, hainbat eskubideren ukatzaile izan edota lege arruntera igarotzea oztopatzen duen lehen gradua bertan behera uzteko eskaerari heldu nahi diote. Hainbat euskal presoek errekurritua du lehen gradua. Laburbilduz, hau guztia bultzatzeko deitu dute larunbateko manifestazioa.

## Datorren astean, elkarretaratzea Usurbilen

Gogoan izan, astebete barrurako deitua du Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak, hileroko euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Hilabete honetako, apirilaren 27rako, ohi bezala, arratsaldeko 20:00etan Mikel Laboa plazan.

## Abizenak euskalduntzeko kanpaina

Duela urte batzuk martxan jarritako “Apellidua abizendu” kanpaina berraktibatatu dute Buruntzaldeko udaletako euskara batzordeek, tartean Usurbilgoak, eskualdeko bake epaitegiekin elkarlanean.

Egitasmo honek, jatorriz euskarazkoak izan baina agiri ofizialetan erdaraz idatziak dituzten abizenak euskalduntzeko aukera ematen zaie herritarrei. Aldaketa hau tramitatzeko, udaletxean eskuratu beharreko errolda-agiria, eta Bake Epaitegian eskatu beharreko jaiotagiri ofiziala eta nortasun agiriaren fotokopia aurkeztu beharko dira, Bake Epaitegian bertan. “Ezkonduak edo seme-alabak dituztenek Famili Liburua ere eraman behar dute”, Usurbilgo Udaletik ohartarazi dutenez. Argi denez, “oso tramite sinplea da, animatu beraz!”, luzatu dute gonbita Udaletik. Hainbat herritarrek euskaldundu dituzte euren abizenak.

Argibide gehiagorako deitu Bake Epaitegira: 943 372 336.



Ezkonduak edo seme-alabak dituztenek Famili Liburua ere eraman behar dute.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.eus

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# EHBilduren babes osoa jaso dute Ainhoa Intxaurrendietak eta Iñaki Errazkinek

Hainbat erakunde, eragile eta herritarren-gandik elkartasun osoa jasotzen ari dira Ainhoa Intxaurrendieta eta Iñaki Errazkin egunotan. Apirilaren 15ean Azpeitian eginiko ekitaldian, EHBildu koalizioaren babes osoa jaso zuten. Bertan ziren, besteak beste, Arnaldo Otegi, Maddalen Iriarte, Marian Beitialarrangoitia, Arkaitz Rodriguez, Pello Urizar, Miren Larrion, Oihana Etxebarrieta, Larraitz Ugarte, Ikerne Badiola, Helena Franco, Juan Karlos Izagirre eta Ander Rodriguez. Eta noski, Intxaurrendieta eta Errazkin. Bertan ziren baita, Usurbilgo EHBilduko kideak.

“Iñaki eta Ainhoa ez dira epaituak izan erabaki oker bat hartzeagatik. Alderantziz, denborak erakutsi baitu zuzen jokatu zutela, zuzen jokatu genuela”, zioen Espainiako Diputatuen Kongresuan EHBilduk duen ordezkari Marian Beitialarrangoitiak.

## “Eztabaida lokazten saiatu dira lehen egunetik”

Argi zioen, hondakinen kudeaketaren inguruan duela hamarkada batetik gora dagoen “eztabaida lokazten ahalegin-du dira lehen egunetik”. Bere esanetan, “barkatzen ez digutena, erabakiak hartzea da. Ez digute barkatzen agindutakoa betetzea”.

Esker hitzak baino ez zituen



Apirilaren 15ean Azpeitian eginiko ekitaldian, EHBildu koalizioaren babes osoa jaso zuten.

## MADDALEN IRIARTE

**“Mila esker berezia Iñaki eta Ainhoari. Mila esker egindako bideagatik, erakutsitako duintasunagatik, herriari agindutakoa betetzeagatik, bidea erakusteagatik eta bidea egiteagatik, mila esker benetan Ainhoari eta Iñakiri”**

Gasteizko Legebiltzarreko EHBilduren bozeramaile Maddalen Iriartek. “Mila esker

berezia Iñaki eta Ainhoari. Mila esker egindako bideagatik, erakutsitako duintasunagatik, herriari agindutakoa betetzeagatik, bidea erakusteagatik eta bidea egiteagatik, mila esker benetan Ainhoari eta Iñakiri”.

## “Gu gara berme bakarra”

Maddalen Iriartek ohartarazi zuenez, “urtebete baino ez da falta EHBildu berriz ere Gipuzkoako Diputazioan egiteko”, politika egiteko beste modu batean egiteko, bizitza duinak sustatuz. Aurrera begira ziurtatzen zuenez, “gu gara herri honen etorkizunaren bermea, berme bakarra”.

## Hurrengo ekitaldiak

### Apirilak 24, asteartea

■ 18:00 Usurbilgo Udaleko udalbatzaren osoko ohiko bilkura. Ainhoa Intxaurrendieta eta Iñaki Errazkinek babesa adierazi eta haien absoluzio galdegiten duen mozioa aurkeztuko du Usurbilgo EHBilduk, udalbatzak eztabaidatu eta bozkatu dezan.

### Maiatzak 17, osteguna

■ “Angula ustelak” hitzaldi zikloko solasaldia Ainhoa Intxaurrendieta eta Igor Melchorrek, Zubietako Kaxkapen.

■ Antolatzailea: Gipuzkoa Zutik.

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA

**Parti**  
Patri 2018 jatetxea

· bazkariak EGUNERO  
· afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

**Kima**  
MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

# Erraustegia ez eraikitzea eskatu du Oriarte Lasarte-Usurbilgo Institutuak

Lasarte-Oriako Landaberri Ikastolakoek bi urte dararamatzate haiengandik 500 metro eskasera eraikitzen ari diren Zubietako erraustegiak ikasle zein irakasleen osasunean izan dezakeen eraginarekiko kezka agertzen eta Hezkuntza Delegazioari argibideak eskatzen. Ez dira bakarrik. Kezka berarekin bat egin du baita Oriartek, Lasarte-Usurbilgo Institutuak. “Kezkatuta gaude”, diote NOAA!ra helarazi duten ondoko idatzi eta argazkiaren bidez. Eta argi dute; idatzian zehar aipatzen dituzten arrazoiak tarteko, “eskatzen dugu, behin eta berriz egingo dugu, erraustegia ez egitea”.

## Oriarte Institutuaren adierazpena

“Oriarte institutuko ikasle/ irakasle/langile jendea gara, eskola jendea eta badu gure lanak halako lotura jakin-mi-



Landaberri ikastolakoek kezka berbera dute Oriarte institutuko kideek.

### ADIERAZPENEAN JASOA

**“Kezkatuta gaude herritarron iritziak eta usteak entzun beharrean, isilarazten saiatzen direlako”**

narekin, gure buruari galderak eginez ikastearekin eta urteak daramatzagu gure inguruaren kalitatea zaintzeko lanean: kontsumo ohitura osasungarriak ikasten, hon-

dakinak berrerabili, birziklatu eta gutxitzeko ahaleginak egiten, hala behar dugula izan garbi dugulako baldin eta nahi badugu bizimodu egokia ziurtatu guretzat eta gerokoentzat. Baina...

Kezkatuta gaude, gure eskolatik gertu egiten ari diren erraustegiarekin gure lan hori dena alferrikakoa bihurtzen delako, egindako bidean atzera jozte delako...

Kezkatuta gaude, ikusten dugulako agintarien itsukeria, beste herrialdeetan errausteketa baztertzeko bidea dela ikusi dutenean, gurean tematuta jarraitzen dutelako inork nahi ez duena bultzatzen.

Kezkatuta gaude, herritarron iritzi eta usteak entzun beharrean, isilarazten saiatzen direlako.

Horregatik, eskatzen dugu, behin eta berriz egingo dugu, erraustegia ez egitea”.

## Osasuna bermatzeko elkarretaratzea

Erraustegia geratu eta osasuna bermatzeko elkarretaratzeak deituak zituen Gipuzkoako anbulatorioetan Errausteketaren Aurkako Mugimenduak asteazken honetarako. Hurrengo astekarian eskainiko dizkizuegu xehetasunak.

# Erraustegia geratzeagatik epaituak

Ainhua Intxaurrendietari eta Iñaki Errazkini elkartasuna adierazi zioten usurbildarrek ostegun arratsaldean Mikel Laboa plazan, 2013ko azaroan Zubietako erraustegiko lanak eteteagatik Madrilgo Kontu Auzitegian epaitu zituzten egun berean.

Epaiketa bidegabea salatu, Intxaurrendietari eta Errazkini elkartasuna adierazi, eta noski, usurbildarrek ez Zubietan ezta beste inon ere erraustegirik ez dutela nahi aldarrikatu zuten, apirilaren 12rako Gipuzkoako herrietan deitu ziren mobilizazio zaratatsuekin bat eginez.



Apirilaren 12an elkarretaratzea egin zuten Mikel Laboa plazan.

### Herritarren mandatu betetzeagatik salatuak

Urte luzez, milaka gipuzkoarren mandatuari bidea emateagatik, 2013ko azaroan Zubietako erraustegiko lanak eteteagatik epaitu zituzten ostegunean,

garai hartako Gipuzkoako Hondakinaren Kontsortzioko (GHK) lehendakari Ainhua Intxaurrendietari eta foru ingurumen diputatu ohi Iñaki Errazkin. EAJ eta PSE-ko ordezkariak agintean dituen egungo GHK-ko ordezkari-

riek EHBilduren aipatu bi kideon aurka aurkezturiko salaketaren ondorioz, Madrilgo Kontu Auzitegian epaitu zituzten apirilaren 12an. Zubietako erraustegiko lanak eteteak eragindako ondorio ekonomikoak bere gain hartzea, beren poltsikoetatik ordaintzea eskatzen diete Intxaurrendietari eta Errazkini; 40 milioi eurotik gora. Argi denez, bizi osoa baldintza diezaieke epaileak erabaki dezakeenak.

Hainbat erreakzio eragin zituen epaiketak, kalean nahiz sare sozialetan. Ugariak izan dira, egunotan, Intxaurrendietari eta Errazkinen jasotako babes eta elkartasun mezuak.

# “Harrera familia gehiago lortzeko beharra dago”

**E**zaguna zaigu 1986an Chernobilgo zentral nuklearrean izandako istripu latza eta istripu hark ingurumen nahiz inguruko bizilagunen osasunean izandako eragina. “Baina hor ez da amaitzen”, azpimarratu diote NOAUA!ri Marta Agirre eta Mikel Ikatategi herritarrek. Hurbiletik ezagutu dute ingurune hura udaberriko oporretan. Chernobilgoa, ingurumen hondamendi batek dakarren gainbehera ekonomiko eta sozial argiaren adibide argia dela diote.

Ukrainako gainerako zonaldeetan ez bezalako bizi baldintza kaxkarrak dituzte zonalde honetan, 30 urte beranduago. “Etxe xumeez, txaboltxoez osatutako herrixka txikiak dira gehienak”, azaldu digute bi herritarrok. Etxe barruan ez dute urik, komuna kanpoan, txabola batean. Aipatzen digutenez, etxetxo bakoitzak bere baratza badu, baina ez da nekazaritza jardueretara bideraturiko lur sailik ikusten, “industriarik ezin da eraiki”.

Elikadura nahiko pobrea



Marta Agirrek eta Mikel Ikatategik Chernobilgo ume bat ekarri zuten iazko udan. Harrera premian diren ume gehiago badirela ohartarazi digute.

## MARTA ETA MIKEL

**“Elikatzeko adina badute, baina beste beharrak asetzeko ez. Etxean ura jartzeko obra txiki bat egin behar badute, ez dute dirurik”**

dute, eta horregatik, nabarmentzen dutenez, “kutsadura arazo bat izanda, gorputzak ez baditu bere defentsak eta behar bezala hazteko aukerak,

kaltea biderkatzen da”. Jateko adina bai, baina hortik aurrera gehiagorako ez dute. “Elikatzeko adina badute, baina beste beharrak asetzeko ez. Etxean ura jartzeko obra txiki bat egin behar badute, ez dute dirurik”, azaldu digute Martak eta Mikelek.

## “Familiak desegituratuta daude”

Hondamendiak ezkutuago geratu den kalte soziala ere ekarri zien zentral nuklearraren inguruan bizi zirenei. “Hango

hainbat familia desegituratuak daude. Ohikoak dira familia barruko indarkeria kasuak, alkoholemia arazoak... Gehi pobrezia” noski. Hango ohiko familia eredia, aitaren figurarik gabeko amona, ama eta gizon ezberdinen seme-alabez osaturiko sendiak dira, “nola ahalako familia egiturak. Ahal duten moduan moldatzen dira, arazo askorekin”.

## “Burua altxa ezinik”

Hitz gutxitan, biziraupen ekonomian murgilduak daudela adierazi digute Ikatategik eta Agirrek. Hiru hamarkada daramatzate, nolabait esatearren, burua altxa ezinik, bizirautean, etsipen puntuarekin. Halakoe-tan, etorkizunari buruz hitz egin ote daitekeen galdetu diegu, udaberriko oporretan Txernobileran egin duten bidaietan. “Jendeak bertan bizitzen segiko badu, egin dezaketinari begira laguntza beharko dute. Norbaitek laguntza hori bere gain hartzen ez duen artean, oso zaila izango da gauzak aldatzea”, ohartarazi digute Agirrek eta Ikatategik.

## Aldi baterako egoera, betikotua

Hango errealitatea bertatik bertara ezagutu nahi zuten bi herritarrok. Jakinmina iaz, Chernobilgo haur bat harreraren etxean hartu izanaren harira piztu zitzairen. “Azkenean gauza asko entzuten dituzu. Haurra harreraren hartu aurreko formazio horretan, hango errealitatea interpretatzen erakusten da. Bestela, interpretazio okerrak erraz egiten dira. Esaterako, haurra serio dago. Zurekin arazo bat duela pentsa dezakezu, baina agian bera hemen egon arren, burua sorterrian du. Auskalo zer nolako tragedia duen hango bizimoduan”.

Hango bizimodua nolakoa zen ezagutzeko jakinminak eraman die azken oporraldian Chernobil inguruetara joatera, eta noski, iaz etxean harreraren hartutako haurra ikusteko go-goa zutelako.

Etxe askotan egoteko aukera izan dute Martak eta Mikelek. Haiekin joandako taldeak bertako emakume bat elkarrizketatu zuten. Bere lekukotza, bizi duten panorama ulertzeko oso argigarria suertatu zitzairen. Istripua gertatu aurretik, Chernobil ingurura, Pripjat hiri-burura etorkizun oparo baten bila joan zirela oroitzen zuten. Itxaropentsu eta pozik, gazte

jende asko. “Bat batean istripua gertatu eta dena hondamendia izan zen”, kontatu zien. Hondamendi horrek bigarren bat ekarri zuen gerora, ezkutuago geratu den hondamendi soziala. “Kontatzen zuten nola hustuarazi zuten hiria. Hiru egunetarako etxetik joan beharko zutela esan, gero betirako izanda. Nola beste familiekin txabola edo etxetxo hauetan moldatu behar izan zuten. Ahal zuenak bere familiarekin kanpora joan zen”. Aldi baterako egoera izango zena betikotu zen gerora. “Bakoitzari emandako rulo (bertako mone-ta) gutxi batzuekin, esan zie-

ten ezingo zirela etxera itzuli”.

Ordutiko ondoko irudietako etxetxoetan bizi dira. Chernobilgo zentral nuklearreko istripuak eragindako giza hondamendia zen emakume hau gehien mintzen zuena. Eta min hau 30 urtez isilpean, barruan gordeta izan zuen. Kanporatu ezinik. “Elkarrizketa amaitutakoan eskerrak eman genizkion. Eskerrak berak eman behar zizkigula adierazi zigun. 30 urtez barruan eraman zuela hau guztia, jendeak gertaturikoa jakin behar zela iruditzen zitzaiola eta hau guztia kontatuta barrua askatu zuela”, malko artean, hunkiturik.



# “Iazkoa oso esperientzia polita eta betegarria izan zen, ahaleginak merezi izan zuen”

**T**estuinguru honetan, argi dute konponbidea ez dagoela hemen, baina “irtenbidearen zati bat egon daiteke, guk egin dezakegun horretan hain zuzen”. Gaineratzen dutenez, “errealitate horretatik atera eta hori gaintzen lagundu dezakeen guztia garrantzitsua da”. Bertan bizi duten egoera latza konpondu ez baina kalteak arintzen lagundu dezake, bi herritar hauek partaide dituen bezalako egitasmoetan esku hartzeak. Bertako haurrak gure artean uda igarotzea ahalbidetzen laguntzen duen Chernobil Elkarteaz ari gara.

Nabarmetzen dutenez, onuragarria zaie hango haurrei uda partean, Euskal Herrian egin dezaketenean egonaldia. Hasteko, ondo elikatzeak aukera izaten dutelako, “gero ere harreman eredu berriak ikusteko. Han biziraupen eskema batean bizi dira. Etsipen betean harapatuak daude. Halako programekin, gauzak beste modu batera egin daitezkeela, hobeto bizi daitezkeela ikusi dezakete, burua irekitzen lagundu, eta hori, etorkizun hobe baten alde aktibatzeak garrantzitsua da”.

Kontziente dira noski, batek baino gehiagok, ezingo duela haur bat harreraren etxean hartu. “Baina egongo da baita, nahi izan baina beldur edo zalantzak izan ditzakeena. Batez ere haiei helarazi nahi genieken mezua zera da; guk gure zalantzak eta kezkek bagenituen, baina informatzea saia daitezela, horrek ez dituela ezertara konprometitzen”.

Martak eta Mikelek iaz izan zuten egitasmo honen berri, telebista bidez. Haur bat etxera ekartzeaz hitz egiteko aukera hitz egin, adostu eta pausoa



Nabarmetzen dutenez, onuragarria zaie hango haurrei uda partean, Euskal Herrian egin dezaketenean egonaldia.

## CHERNOBILGO BISITARIA

**“Iaz Udajolasen hartu zuen parte. Primeran etorri zitzaion, azkenean herriko haurrak ezagutu eta lagunak egin baitzituen”**

eman zuten. Chernobil Elkartera jo zuten, informazioa biltzera. “Ondo zegoela ikusi eta animatu ginen”, adierazi digute. Ez ziren damutu. Haurra harreraren etxean hartu aurreko prozesu guztian zehar babes-

tuak sentitu zirela adierazi dute. “Gure zalantza eta kezka handiena nola aterako zen, haurrarekin egoteko nola antolatuko ginen zen. Bi hilabete izaten dira, uztailea eta abuztua. Lanean moldatu genuen, horretarako aukera genuela ikusi genuen”.

Goizetan lan egin behar zuten, haurrak udako txokoetan parte hartu zuen. Uztailean, NOAUA! K.E.-k Udalarekin elkarlanean antolatutako Udajolasen. “Primeran etorri zitzaion, azkenean herriko hau-

rrak ezagutu eta lagunak egin baitzituen. Euskaran aurrera egiteko ere inguru ezinhobeak da hori, lagun artearena alegia. Abuztuaren, hemen aukerarik ez zegoenez, Ekoguneak antolatutako udalekueetan parte hartu zuen”.

Ahaleginak merezi izan zuten. “Oso esperientzia polita eta betegarria izan zen”. Askotan gutxi dugula pentsatu arren, halako esperientzia baten daukaguna gehiago baloratzen ikasten laguntzen duela diote.

## “Bueltan jasotzen duguna emandakoa baino gehiago da”

Argi utzi nahi dute, haurra etxean hartzea ez da karitate ekintza bat. “Noski eman egiten duzula, haurrok beharra baitute, baina bueltan jasotakoa agian emandakoa baino gehiago da”, diote Martak eta Mikelek. Iaz oso ondo pasa zutela adierazi digute eta neurri berean ere ikasi zutela. Bizi izan zutenak, elkartruke esperientzia baten tankera gehiago du. “Harremana aberasgarria da bizi zentzutan. Guk haiengandik

ikasten dugu, haiek gugandik”. Haurrok gugana datozenean, bestelako gizarte eta familia ereduak ezagutzeko aukera duten bezala, haurron bidez haien bizimodua ezagutzeko aukera aparta dago baita.

“Jarraitzeko asmoa dugu”, esan digute. Aurten ere harreman hartuko dute Chernobilgo haurra udako hilabeteetan. “Gure aldetik pauso guztiak emanak daude”. Hala egitera animatzen dute ahal eta nahi dutenek. “Azken urteetan be-

hera egin du harrera familia kopuruak. Garrantzitsua da behar hori hor dagoela adieraztea eta jendea animatzea, parte hartzera. Harrera familia gehiago lortzeko beharra dago”. Hemen dituzue Chernobil Elkartearekin hartuemanetan jartzeko bideak:

670 419 078

Facebook: Asociacion Chernobil Elkarte  
 asociacionchernobilelkartea.blogspot.com.es  
 chernobil@asociacionchernobil.info

# Errigoraren udaberriko kanpaina 6.500 sukaldeetara iritsi da

Nafarroa hegoaldeko tokiko produktuen ekoizpena eta merkaturatzea sustatu, eta jasotako laguntzaren zati bat bertako euskalgintza bultzatzera bideratzen duen Errigora ekimenak abian izan duen udaberriko kanpaina, arrakastatsua suertatu da. Usurbilen, oliba olio konbentzionaldun 64 bidoi eskatu dituzue aurten, beste 46 ekologiko. Eta 9 bidoi sorta.

Gogoan izan, kontserbak ere eskatuak dituzuenok, ekainean helduko zaizkigu. Jaso bezain laster jakinaziko dizuegu. Produktuok eskuratzekoan egin beharko dituzue ordainketak.

## “6.500 sukalde gara!”

Errigoraren udaberriko kanpainak izan duen arrakasta neurtzeko, segidan dituzue egitasmo honen sustatzaileek helarazitako datu orokorrak. “Errigoraren komunitatea sendotuta irten da udaberriko kanpainatik: Euskal Herriko 6.500 bat sukaldeetara helduko da zubi bat Nafarroa hegoaldeko, eskuetik eskura ia 93.000 litro olio eta 207.000 ontzi kontserba banatzeko”.

Errigoraren kanpainaren tamaina neurtzeko, gaineratzen dutenez, “datu gordinenei neurria hartzen laguntzeko,



Kontserbak ere eskatuak dituzuenok, gogoan izan ekainean helduko direla. Jaso bezain laster jakinaziko dizuegu.

## ERRIGORA EKIMENA

**70 herrietara heldu da kanpaina, azken bost urteotan.**

**“Hamaika aldiz esan arren, hamabigarrenez ere esan behar baitugu, herriz herri ehundu den sarea dela Errigoraren altxorrik handiena”**

esan dezagun gutxi gorabehera —barietateak eta oliben errendimendua tarteko— 38.630 olibondo behar direla aurten go olio eskaerari erantzuteko. Kontserbei dagokienez, ostera, 25 hektarea baino gehiagok ematen duena beharko

da 207.000 ontziak betetzeko. Bestela esanda, 36 futbol zelaiaren azaleraren uzta behar du aurtengo kontserba eskaerak. Bada zerbait!”.

70 herrietara heldu da kanpaina, azken 5 urteotan. “Hamaika aldiz esan arren, hamabigarrenez ere esan behar baitugu, herriz herri ehundu den sarea dela Errigoraren altxorrik handiena”, berri eman dute. Hazten doan sarea, herri lanaren emaitza dela azpimarratzen dute. Esker hitzak baino ez dituzte Errigorako kideek. “Mila esker eta mila zorion, beraz, nola edo hala kanpainan parte hartu dugun guztioi”.

Informazio gehiagorako: [errigora.eus](http://errigora.eus)

## Otsaileko langabetu kopuru berbera martxoan

Aldaketarik ez martxoan, Usurbilgo langabetu kopuruan. Otsaileko datu bera erregistratu zen, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak kaleraturiko azken datuen arabera. Guztira 262 langabetu zenbatu zituzten Usurbilen. Gizonezkoen artean bi langabetu gehiago eta emakumezkoen artean bi

langabetu gutxiago izan arren, tarte handiz, emakume langabetu gehiago izaten segitzen du udalerrri honek, 154 guztira eta lanik gabeko 108 gizonezko.

Martxoan erregistraturiko lan kontratu kopuruari dagokionez, bestelako panorama dugu; 241 gizonezkoen kontratazioa bideratu zen joan den hilabetean,

eta 143 emakumezkoena. Guztira, 384 lan kontratu erregistratu ziren martxoan. Ia denak, 356, aldi baterako.

Buruntzaldean zertxobait gorantz egin du langabetu kopuruak, otsailetik martxora; 3.272tik 3.310era. Gipuzkoan aldiz beherantz, 33.602tik 33.331era.

## Ekintzaileentzako ikastaroa

“Zure enpresa nola sortu edo kudeatu” izeneko doako ikastaroa antolatu dute Beterri Buruntzako udalek, tartean Usurbilgoak, Lanbiderekin elkarlanean, maiatzaren 8 eta 9rako Hernaniko Gabriel Zelaia eraikinean. Goiz (09:00-13:00) edo arratsaldeko (15:00-19:00) taldean parte hartzeko aukera egongo da. Ikastaroa, enpresa bat sortu nahi izan edo enpresa bat martxan jarri berri duten pertsona eta ekintzaileei zuzendua dago.

Argibideetarako: 943 304 221 (Nerea Yurrebaso) edo [ekinean@andoain.eus](mailto:ekinean@andoain.eus)

## Lanbide Heziketan ere euskaraz

2018-19 ikasturterako matrikulazio epea maiatza amaieran irekiko denez, Lanbide Heziketan ikasketak burutu asmo dituztenentzat, erdi eta goi mailako zikloetan euskaraz ikasi ahal izateko eskuera duten eskaintzaren berri zabaltzen ari zaizkie Buruntzaldeko udalak, tartean Usurbilgoa, eskualdeko gazteei, baita usurbildarrei ere, eskuorri baten bidez. Xehetasun gehiago, ikaslan.net edo [hetel.eus](http://hetel.eus) atarietan jaso ditzakezue, edo laster, gai honi buruz argitaratuko dugun erreportajearen.

## EuskoSkills 2018 jardunaldia Lanbide Eskolan

Ostegun honetan, apirilaren 19an, Instalazio Elektrikoetako EuskoSkills 2018 jardunaldia ospatuko da Usurbilgo Lanbide Eskolan, “bertan ikaslerik iaioenak parte hartuko dutelarik. Espero dugu bere lanekin garaile ateratzea”, Zubietako ikastetxetik ohar bidez jakinarazi digutenez.

# Altsasuko gazteak aske nahi dituzte



Argazkian, Oriarte Lasarte-Usurbilgo institutuko ikasle talde bat.

Ursurbilen hainbat herritarrek egin bezala, Oriarte Lasarte-Usurbilgo institutuko hainbat ikasleek ere bat egin zuten aurreko astean, Altsasuko gazteen alde joan den larunbatean Iruñean egin zen manifestazio jendetsuarekin.

Milaka euskal herritarrek eskatu bezala, aske eta etxean nahi dituzte, aste hasieratik Espainiako Auzitegi Nazionalen epaitzen ari diren 8 gaz-

## ALTSASUKO GAZTEEKIN BAT

**Oriarte Lasarte-Usurbilgo institutuko hainbat ikasleek bat egin zuten aurreko astean, Altsasuko gazteen alde Iruñean egin zen manifestazio jendetsuarekin**

teak. Haietako hiruk 500 egun baino gehiago daramatzate espetxean, 2016ko urrian Altsasuko taberna batean bi guar-

dia zibilekin izandako liskar batengatik. Terrorismo delitua egozten zaie, 12-62 urte arteko espetxe zigorrak eskatzen ditu Fiskaltzak gazteontzat. Iazko uztailan onarturiko adierazpenaren bidez, Usurbilgo Udaleko udalbatzak “Zuzenbide Estatu batean onartezina litzatekeen neurrigabekeriatzat” jo zituen espetxe zigor eskaerok.

Altsasuko gertaerak Iruñean epaitzea ere galdegiten zuen, milaka euskal herritar eskatzen ari diren moduan.

## Bihurri ludotekan bi saio egingo dituzte maiatzean

Maiatzaren 18an ostirala, Olatz Korta eta Xabi Zubeldiaren musika emanaldia antolatu dute Bihurri ludotekan. 17:30ean hasiko da emanaldia.

Maiatzaren 30ean astelehena, gurasoei zuzenduriko hitzaldia: “Identitatearen ibilbidea. Neska-mutil anitzak, sexualitateak, transexualitatea”.



Maiatzaren 18an, kantaldia ludotekan.

17:00etan, Bihurri ludotekan bertan. Solasaldia Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneak eskainiko du.



## Ikastolaren

### 50. urtemugako diskoa kaleratzeaz

Urtemuga berezi honen harira, martxoan zehar grabatu zuten 12 kanten diskoa datorren asterako kalean izango dela iragarri dute Udarregi Ikastolatik. “Apirilaren 23tik aurrera, ikastolan izango dugu gure diskoa!”, berri eman dute udarregi.eus atariaren bidez. Gogoan izan, 6 eurotan eskuratu ahalko duzue Lizardi eta Laurok liburu dendetan, Bordatxo tabernan eta Udarregi Ikastolako idazkaritzan.

### Matrikulazioa Haur Eskolan

2016an, 2017an eta 2018n jaiotakoei zuzendutako deialdia. Apirilaren 27ra arte zabalik izango da 2018-19 ikasturterako matrikulazio epea Haur Eskolan. Bulego ordutegia, 09:30-12:30 artekoa da. Argibide gehiagorako: 943 374 061 / haureskola@udarregi.eus

## Udako Txokoak

### Zubietan, 2-12

#### urteko gazteentzat

Zubietako Guraso Elkarteak udan zehar, 2-12 urte artekoek zuzendutako txokoak antolatu ditu Zubietan.

### Harremanetarako:

Txokoetan parte hartzeko interesa dutenek idatzi dezatela zubietatxoko@gmail.com helbidera edo 649 659 786 telefono zenbakira deitu.

### Yolanda Arrieta, Donostiako Udako Ikastaroetan

Yolanda Arrieta idazleak “Klasikoak, gaur: Mari Xor” izeneko saioa eskainiko du Donostiako Udako Ikastaroetan. Ekainaren 18an eta 19an egingo da ikastaroa baina aldeztetik eman behar da izena. Matrikulazio epea zabalik da. Miramar jauregian emango du eskola eta Aitziber Alonso ilustratzailea izango du bide-lagun.

# Andatzakoen datorren txangoak Ereñozu, Lesaka eta Herri Urrats lotuko ditu

Azken urteotako tradizioari eutsiz, asteburu pasa antolatuta du Andatza M.K.T.-k maiatzaren 12 eta 13rako, Senperen (Lapurdi) ospatuko den Herri Urrats jaialdiaren harira. Ereñozutik abiatuko dute oinez txangoa larunbatez. Nahi duenak egunbete beranduago bat egin ahalko du irteerarekin, edo zuzenean autobusez Herri Urratsera joan ahalko da. Izen ematea zabaldu dute jada. Honatx xehetasunak:

## Egunak: maiatzak 12-13

Aukeran, egun bat edo biko irteera.

### Bi eguneko irteera (maiatzak 12-13):

■ Abiatzeko hitzordua: 8:30etan autobusez Oiardo Kiroldegitik.

■ Ibilbidea: maiatzaren 12an Ereñozu-Lesaka (6,5 ordu), maiatzaren 13an Lesaka-Senpere (5,5 ordu).

■ Aterpea: Lesakako Matxinbeltzenez dutxa, loa eta gosaria. Afaria aparte ordainduko da. Aterperako toaila norberak eraman beharko du.

■ Prezioa: 30 euro.

### Egun bateko irteera (maiatzak 13):

■ Ibilbidea: Lizuniaga-Senpere (3,5 ordu).

■ Abiatzeko hitzordua: 8:30etan autobusez Oiardo Kiroldegitik Lizuniagaraino (nahi duena Senpereko Herri Urrats jaialdiraino autobusez joan daiteke. Kasu honetan, ez da zertan federatua egonik).

■ Prezioa: 10 euro.

■ Izen ematea: ordainketak maiatzaren 9a baino lehen egin, bi kontu zenbakiotako batean:

Rural Kutxa:



Maiatzaren 12an Ereñozu-Lesaka (6,5 ordu) osatuko dute eta maiatzaren 13an Lesaka-Senpere (5,5 ordu).

### IZEN EMATEA ZABALIK DA

**“Ereñozutik abiatuko dira oinez. Baina nahi duenak egunbete beranduago bat egin ahal izango du irteerarekin. Bi dira, beraz, aukerak: bi eguneko irteera egitea edota egun bakarrekoa”**

3008 0259 1630 0543 0321.

Kutxabank:

2095 5069 0710 6848 9805.

### Oharrak:

-Plaza kopuru mugatua.

-Bi eguneko irteerako parte hartzaileen kasuan, 2 egunerako ibilbiderako otordua, toaila eta aldatzeko aropa eraman beharko da.

-Maiatzaren 13an Lizuniagan elkartuko dira autobusez datozenekin, Senpereko Herri

Urrats jaialdira joateko. Senperetik itzultzeko autobusa, 18:30etan.

-Andatza M.K.T.-k antolaturiko irteeretan parte hartzeko ezinbestekoa da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela in-

darrean izatea.

### Informazio gehiago:

andatzamendizale.info

### Antolatzailea:

Andatza M.K.T.

## Maiatzaren lehen igandean, Andatza Eguna

Maiatzeko asteburu pasaren aurretik, ohi bezala, hilabete lehen igandean Andatza Eguna izango dugu. Andatza M.K.T.-tik iragarri dutenez, “Andatzako gailurraren alboko txabolan ospatuko da”.



Ekainaren 10ean Kanpazar eta Arlaban arteko bidea osatuko dute.

### Gipuzkoako Bira

■ Ekainak 10 igandea: Gipuzkoako Birako bosgarren etapa, Kanpazar (Arrasate)-Arlaban (Leintz Gatzaga).

■ Irailak 9 igandea: Gipuzkoako Birako seigarren etapa, Arlaban-Arantzazu.



**Auto baten xasis-a  
3D inprimagailu baten  
eraiki dugu.**

*Nerea Sanchez Echezarreta*

Errenteria. Prozesu Industrialetako  
Ekoteknologien Ingeniaritza, 3. maila



**GOI ESKOLA  
POLITEKNIKOA**

**ARRASATE • APIRILAK 26**

OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

**ORONA IDEO • MAIATZAK 5**

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

**ENPRESAGINTZA  
FAKULTATEA**

**OÑATI • APIRILAK 28**

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

**BILBAO • MAIATZAK 5**

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

**BIDASOA • MAIATZAK 17**

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

**HUMANITATE ETA  
HEZKUNTZA ZIENTZIEN  
FAKULTATEA**

**ESKORITZA • MAIATZAK 12**

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

**ARETXABALETA • MAIATZAK 12**

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

**GASTRONOMIA ZIENTZIEN  
FAKULTATEA**  
Basque Culinary Center

**DONOSTIA • MAIATZAK 12**

LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

ETORRIKO  
ZARREA  
JAKINARAZI!



# Ekainaren 10eko giza-katerako berotzen

Usurbilgo plaza grabazio platoon bilakatu zuten Gure Esku Dagok, joan den igande goizean. Hainbat usurbildar nahiz Gipuzkoako beste hainbat txokoetako herritarrak hurbildu ziren, erabakitze eskubidearen aldeko mugimenduak ekainaren 10erako deitu duen giza-katea iragartzeko antolatu zuten bideoklip grabaziora. Herritarren bilgune ederra irudikatu zuten plazan.

Eta amaieran, ondoko talde argazkia aterata, ekainaren 10ean etorkizunari eskua ematera animatu zuten jendea. Laster ikusi ahalko dugu, Usurbilen nahiz Euskal Herriko beste txoko batzuetan eginiko grabazioen emaitza, bideoklipa bera alegia.

## Izen ematea

Gogoan izan, Internet bidez (gizakatea.gureeskudago.eus atarian) nahiz Gure Esku Dagok asteburuetan frontoi inguruan jarri ohi duen postuan eman dezakezue giza-katerako izena.



Laster ikusi ahalko dugu, Usurbilen nahiz Euskal Herriko beste txoko batzuetan eginiko grabazioen emaitza.

## Usurbilen, jada, 250 lagun animatu dira

Aurreko astebururako jada 250 usurbildarrek bat egina zuten Euskal Herrian inoiz deitu

den mobilizazio handienerako. Postu horretan gainera, kamiseta berriak 10 eurotan eta painueloak 5 euroren truke eskura ditzakezue.

## Informazio gehiago:

- [gureeskudago.eus](http://gureeskudago.eus)
- Facebook: Gure Esku Dago Usurbil
- Twitter: @GureEskuDagoU

# Maiatzaren 5ean, lasterketa Donostian

Ekainaren 10eko giza-katea iragartzeko "Gure Lasterketa" antolatu du Gure Esku Dagok maiatzaren 5ean Donostian, goizeko 10:00etan.

## 4,5 kilometroko luzera

4,5 kilometroko ibilbidea osatzera animatzen dute, Ondarretan hasi, Kontxa zeharkatu eta Sagueseraino. 14 urtetik gorako 1.000 lasterkarientzako lekua egongo da.

Izen ematea zabalik dago jada maiatzaren 4ra arte 12 eurotan, herrikrosa.eus atarian.



Igandean, goizeko 9:00etan elkartu ziren Dema plazan, Lander Garro zuzentzen ari den bideoan parte hartzeko.

# BAZKIDEEN TXOKOA



**Maiatzak 4  
ostirala,  
20.00tan Sutegin**

**"ERREMENTARI"**  
*pelikula*

**noaua! euskararen aterpe**

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu maiatzaren 2an

Bazkide egiten bazara. Opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan Parte hartzeko aukera 943 360 321 / eukartea@noaua.eus

# BAZKIDEEN TXOKOA



**apirilaren 20an ZOZKETATUKO DUGU:**

**AGINAGA  
SAGARDOTEGIAN**

**2 LAGUNENTZAKO  
afari edo bazkaria**

**NOAUAREKIN  
TXOTXI!**

**noaua! euskararen aterpe**

Bazkide egiten bazara. Opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan Parte hartzeko aukera 943 360 321 / eukartea@noaua.eus

# Errioa, euri-jasak irentsi ezinean

Inguruotan nahiz Gipuzkoan goragoko herrietan azken egunetan botatako euri-jasak irentsi ezinda, bere ohiko bidetik irten zen Oria apirilaren 11n.

Errio ertzetik gertu zeuden lur eremuak urpean geratu ziren, Zubieta, Atallu edota Aginaga aldean. Kezka nabarmena eragin zuen bereziki, gau partean. Alerta maila goreneraino heldu baitzen ibaia, gorriraino. Udalak Larrialdi Mahaia deitu zuen jada urak pixkanaka jaisten hasiak ziren biharamunerako, uholdeek eragindako kalteak neurtu eta neurriak hartzeko. Bilera amaieran berri eman zuten, “uholdeek erriberako baratzetan kalteak eragin badituzte ere, gainerakoan ez da kalte esanguratsurik



Bataz beste, metro karratuko 121 litro zenbatu zituzten 48 orduko tartean.

izan”. Alerta larrian igaro geginuten 24 ordu, apirilaren 11tik 12ra.

Zenbait argazki dituzue segidan. Botatako euri jasei lotutako datu bat. Usurbildik gertu,

Lasarte-Orian metro karratuko 121 litro zenbatu zituzten 48 orduko tartean.



Udalaren esanetan, uholdeek erriberako baratzetan eragin zituzten kalte handienak. “Gainerakoan ez zen kalte esanguratsurik izan”.






Alerta laranja igaro genituen 24 ordu, apirilaren 11tik 12ra. Biharamunean, urak bere bidera bueltatu ziren.

# Euskara begipuntuan dutenen erradiografia

Joan Mari Torrealdaik *Asedio al euskera* (Txertoa) izeneko liburua plazaratu du. XVIII. mendetik gaur arteko informazioa bildu du bertan. Batetik, estatu frantsesak eta espainolak euskararen kontra egindakoaren berri ematen du liburuak. Iraultza frantsesarekin hasi eta monarkiak, frankismoa eta egungo autonomia garaia aztertutitu.

Bestetik, intelektualek jokatu duten papera aztertu du. "Estatuaren jarrerak legitimizatzeko, justifikatzeko eta zuritzeko" bete duten funtzioaz mintzo da liburuan. "Ez daude maila pertsonalean koordinatuta, baina denek dute atzetik euskararen kontrako eta espainolaren aldeko ideologia bat". Liburuaren sarreran Juan Carlos Moreno linguistak aipatzen duenez, jarrera hori "supremazismo espainolaren" erakusle da.



Joan Mari Torrealdaik *Asedio al euskera* (Txertoa) liburua aurkeztu du aste honetan. Argazkia: Txertoa.

## BAZKIDEEN TXOKOA

## noaua! euskararen aterpe

NOUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu maiatzaren 2an


Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkarte@noaua.eus

# Herritarrei gonbidapena

**K**aixo, Udarregi ikastolako LH 1eko ikasleak gara eta gonbidapen batekin gatzoz oraingoan. Aste Santuen aurretik, guraso baten bisita izan genuen gelan, eta esperimentu ezberdinak egin genituen bere laguntzaz. Primeran pasatu genuen, eta horrelako bisitak asko gustatzen zaizkigu. Oraingo honetan, gorputza eta elikadura osasuntsuarekin du lotura gure gaiak, eta baten bat gaiaren inguruan azalpenak eta gauza interesgarriak kontatzera animatuko balitz asko eskertuko genuke. Animatzen al zarete? Laister arte!!!

## Asmakizuna

Argazkian munstro berdea ageri da, baina zein elikagaiez egin dagoen ez dizuegu esango. Ea asmatzen duzuen!



## LH1eko ikasleak

“Zein elikagaiez osatuta dago argazkiko munstro berdea?”.

## Fruta Festa egiten dugu ostiralero

Ba al dakizue Haur Hezkuntzakook zenbait ostiraletan “Fruta-Festa” egiten dugula?

Goizean, laguntzaile bereziak (gurasoak, batzutan moztortuta...) etortzen zaizkigu gelara eta gelako haur batzuekin batera hamaiketako prestatzen digute. Fruta garbitu, zurutu, zatitu eta aurkezten digute oso modu erakargarri eta dibertigarrian.

Eta ekimen honen bitartez, frutaren presentzia eta ikastola-familia arteko harremanak sendotzen ditugu.

Parte hartzaile guztiak gustura geratu gara eta aurreantzean jarduera honekin jarraitzeko asmoa dugu. Parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Animatzen?

## Haur Hezkuntzakoak



# Belaunaldi berriaren txanda, 6. Dantza Egunean

Udaberriko oporrek as-teburuz aldarazi badezakete ere, egun seinalatua dugu jada Usurbilek dantza, dantzari eta zaletuei eskaintzen diena. Aurreko bost edizioetan zehar hazten, errotzen joan eta herritarren artean harrera bikaina izan duen jaialdiaren seigarren edizioa datorkigu larunbatean, egitarau oparo baten bueltan. Lerrook idazteko informazioa biltzen ari ginen unean, Orbeldi D.T.-k apirilaren 21erako antolatu duen 6. Dantza Egunerako astebete pasatxo falta zen. “Urduritasun pixka batekin” aurkitu genituen antolatzaileak. Prestaketa lanekin ziotenez, “goiz hasten gara, baina azkenerako lana pilatzen da”, adierazi zioten NOAUA!ri Orbelditik.

Azken ukituak ematen zebiltzan apirilaren 21eko jaialdiari, entsegu eta entsegu artean. Egitaraua guztiz lotua dute. Euskal Herriko nahiz etxeko taldeek abiatuko dute 6. Dantza Eguna larunbatean. Borobildu berriz, ikusmin eta zirrara handia eragin ohi Orbeldikoen herri ikuskizunak. Hilabeteotan lantzen aritu diren “Euskal genesis” emanaldia estreinatuko dute Orbeldiko kideek larunbat gauean. Eta estreinaldiez ari garela, aurtengo egitarauan bi berrikuntza dituzte, nabarmentzekoen artean; batetik, dantzarien jantziak eta haur zein gaztetxoek izango duten parte hartzea.

## Jantzi pertsonalizatuak

Aurtengoan adi begiratu, ez bakarrik ikusiko dituzuen dantza emanaldiei. Baita dantzariak soinean izango dituzten jantzi ederrei ere. Ikasturte honetan inoizko sortze lan prozesu handiena bideratu baitu Orbeldi D.T.-k. Koreografiak lantzeaz gain, dantzari bako-



Orbeldi Dantza Taldekoek egitarau oparoa prestatu dute larunbat honetarako. Argazkia: Orbeldi Dantza Taldea.

## ORBELDI DANTZA TALDEA

**“Larunbat gauean, azken hilabeteotan lantzen aritu diren ‘Euskal genesis’ emanaldia estreinatuko dute”**

tzak bere arropa ere prestatu du. Oraingoan, dantzariak diseinu lanetan parte hartu dute. Gogotik saiatu dira, NOAUA!ri aipatu diotenez. Larunbat goi-

zero bildu dira arropak lantzera, “larunbatak elkarlanean eta gustura pasa ditugu denon artean”. Antolakuntzak eskuragarri jarritako material ezberdinekin sortu dituzte jantziak. “Originalak izango dira. Bakoitzak berea prestatu du”, iragarri dute.

## Belaunaldi arteko loturak sendotzen

Ate joka dugun seigarren edizio honetan bestalde, belaunaldi berriaren parte hartzea

sustatu nahi du Orbeldi D.T.-k. Arratsalde parterako haur eta gaztetxoek emanaldi propioa berreskuratu dute. Eta gauean, haietako batzuk, DBH4-ko dantzariak hain zuzen, lehen aldiz “Euskal genesis” ikuskizunaren estreinaldian ikusiko ditugu. Modu horretan, belaunaldi arteko lotura sendotu, eta pixkanaka, aurpegi berriei tartea eman nahi die Orbeldik dantzari eskaintako egun handi honetan. Non hobekiago, guztion plazan baino.

## VI. Dantza Eguna, egitaraua

Goizetik gauera, dantza giroan murgilduko gara larunbatean Usurbilen. Hemen duzue hitzorduen agenda:

### Apirilak 21, larunbata

- 10:30 Dantza taldeei ongi etorria.
- 11:00 Argazki ofiziala.
- 11:30 Dantza taldeen kaleji-

ra herrian zehar.

- Orbeldi Dantza Taldea, Usurbil.
- Akelarre Dantza Taldea, Hendaia.
- Aurtzaka Dantza Taldea, Beasain.
- Ortzadar Dantza Taldea, Iruñea.
- Bizkargi Dantza Taldea, Larrabetzu.
- 13:00 Emanaldia frontoian.

■ 14:30 Dantzarien bazkaria. (Txartelak 16 eurotan Orbeldiren egoitzan).

■ 17:00 Orbeldiko haurren emanaldia frontoian. Jarraian, Ttipika dantza gidatuak.

■ 22:30 “Euskal Genesis” Orbeldi D.T.-ren ikuskizuna.

■ Antolatzaileak: Orbeldi D.T. eta Usurbilgo Udala.

# “Lehen asko elkar ezagutzen baginen, orain are gehiago”

**1**0 bat urte edo izango zizuten Usurbilgo 2013ko lehen Dantza Eguneko “Sorginetxe” izeneko ikuskizunaz gozatu ahal izan zutenetik. Ordutik, publiko gisa bizi izan dute usurbildar gehien biltzen duen sortze lan handi hau. Sei-garren edizio honetan, oholntza gainera igoko dira lehen aldiz. Haien txanda da.

Urduri, baina era berean ilusio handiz eta gogotsu dira 6. Dantza Egun honetarako. Estreinakoz parte hartuko dute Dantza Eguneko gaueko herri ikuskizunean, Orbeldiren DBH4ko dantzari taldeak. “Urtero asko gozatu dugu ikusten, askotan inbidiaz ere bai. Aurten parte hartzeko aukera eman digute eta gogoia bada, urduritasuna ere bai. Asko entseatu dugu, eta dena ondo ateratzea espero dugu. Erronka bezala hartu dugu eta hori gainditzera eta gozatzera goaz”, adierazi diete 15-16 urteko ikasleok NOAUA!ri.

Dantzariok gaueko ikuskizunean izango duten parte hartzea zerotik diseinatu ahal izan dutela esan daiteke. “Euskal genesia” Dantza Eguneko emanaldian aritzeko gonbita jaso zutenetik, plazaratu beharreko koreografia ontzen, fintzen, moldatzen joan dira hilabeteotan irakasleekin. “Hasieran ez genuen batere argi eta pixkanaka sortzen joan gara. Hori izan da erronka handiena. Dena pentsatzea, guretzat lanketa handia izan da. Dantza guk sortu dugu, gure eta irakasleen artean”.

## “Gure egin dugu dantza”

Lanketa handia izan da bai, baina esperientzia aberasgarria baita. “Azkenean dantza guk pentsatu, egin eta aldatuta,



Gaztetxoek ere saio berezia prestatu dute aurtengo Dantza Egunerako.

## DBH4KO IKASLEAK

**“Aurten parte hartzeko aukera eman digute eta, gogoia bada, urduritasuna ere bai. Asko entseatu dugu eta dena ondo ateratzea espero dugu”**

gure egin dugu. Hartara, konfiantza gehiagorekin ateratzen zara plazara. Jada badakizu gustuko duzun zerbait egiten ari zarela. Dantza egitea gauza handia bada, pentsa jada dantza guk sortzea”, diote DBH4ko dantzariok.

## Taldea sendotzeko lagungarri

Dantzaz soilik ez, gainerako Orbeldi kideen antzera, emanaldirako jantziez ere arduratu dira. “Oinarri bat eman ziguten eta hortik bakoitzak nahi duena sortu du. Helburua, bakoitzak bere sormena eta nortasuna erakustea zen. Material eta kolore asko jarri digute eskuragarri, orduan ez da hain zaila izan”, adierazi digute DBH4-ko dantzariok.

Dantza taldeko jostunen eta gainerako talde kideen laguntza jaso eta bide batez, belaunaldi arteko harremanetan sakondu ahal izan dute. Elkarlanean aritu baitira hilabeteo-

tan. “Trajeak egiteko elkartzen ginen gelan denok. Gela batean egotean trajeak sortzen, harreman berriak sortzea eragiten du”, diote. Entseguetan bezala, giro ederra izan dute.

## “Seguruago sentitzen gara”

Eginikoa plazaratzear duten honetan, hau guztia larunbatean oholntza gainera eramatea ere ederra iruditzen zaie. DBH4koei, hilabeteotako prozesuak taldea sendotzen lagundu die. “Taldea bezala ere elkarrekin eztabaidatzen ikasi dugu. Azkenean, gure artean konfiantza sortzen lagundu du. Gure arteko hartuemana hobetu edo konfiantza handitu da. Konfiantza horrek dantzatzeko garaian urduritasuna gutxitu edo kentzen dizu, seguruago sentitzen zara. Denok elkarren artean laguntzen gara. Lehen asko elkar ezagutzen baginen, orain are gehiago”, goraipatzen dute gazteok.

## Gaztetxoek saioa, arratsalde

Hitzordua bikoitza izango dute Dantza Egunean. Gaueko ikuskizunaren aurretik, Orbeldi D.T.-k arratsalde parterako berreskuratu duen haur eta gazteen saioan ere parte hartuko baitute. “Herri mailan egiten den lana herri osoari erakusteko aukera ederra” dira halako

saioak, euren ustez. Herri giroa sortzeko baita, nabarmentzen dutenez. Arratsaldeko emanaldiaren ostean, denontzako erromeria izango da segidan. “Dantza eguna ez da bakarrik Orbeldiko dantzariontzat. Erromeriarekin jendea anima dadila eta dantza dezala. Ez dezatela parte hartzeko lotsarik izan, denak ongi etorriak izango dira”. Eta gehiagorako gogoz geratzen dena, Orbeldin izena ematera animatzen dute.

## Eta berri, dantza lotunea

Pixkanaka ikasturte amaierara heltzen ari dira. Ekainean elkar agurtu beharrean aurkituko dira. DBH4 amaituko baitute, eta honenbestez, badoaz Udarrigi Ikastolatik. Bakoitzak bere bideari ekingo dio. Baina ez dute dantza utzi nahi. Uda partean jaietan eskaini izan dituzten emanaldien ondotik, udazkenetik aurrera hain zuzen, Orbeldi haien bilgunea izaten segitzea nahi lukete. “Dantzan elkartuta segiko dugu. Bakoitzak bide desberdina hartu arren, dantza taldean berriz denok batera egoteko aukera on bat izango da”. Dantzak talde kide hauen arteko lotunea izaten segiko du. Ez dute urteotan ikasitakoa, dantzak eman diena alboratu nahi.

# Tosta Bandaren kontzerturako gonbidapenak eskuragarri

Jexux Artze K.E.-ren eskutik, herrialde ezberdinetako (Euskal Herria, Galiza, Eskozia, Irlanda...) 10 musikari eta abeslariz osaturiko Tosta Bandak apirilaren 25ean 19:30ean Sutegin eskainiko duten entsegu moduko kontzertuaz gozatzeko aukera izango dute usurbildarrek.

“TOSTA kontzertu/ikuskitzunean TOSTA BANDAko 10 musikari eta abeslarik hartzen dute parte. Hauek guztiek haien kalitate eta beraien kultura eta herrialdeetan erreferente izateagatik izan dira aukeratuak: Euskal Herritik Oreka Tx eta Ixi Jauregi, Eskoziatik Rona Wilkie, Galiziatik Mónica de Nut, Frisiatik Marit Talens, Irlandatik Caoimhín Ó Fearghail, Galesetik Gwilym Bowen Rhys eta Kornuallese-tik Bec Applebee. Dantza eta musika Kornualleseko dantzari keltiar baten eta gonbidatu berezi gisa Kukai Dantza Konpainiako bi dantzarien eskutik uztartzen dira. Haiek guztiek amankomunean dute kultura txikitako kide izatea, hizkuntza gutxituak hitz



Apirilaren 25ean asteazkena arituko dira Sutegin.

## JEXUX ARTZE K.E.

**“Kontzertu-ikuskitzunean entsegu orokorraz gozatzeko aukera izango dugu Usurbilen”**

egitea eta internazional mailan ezagunak diren musika tradizio aberatsak izatea. Lehen aldia da kultura hauetako instrumentu, erritmo, kantu, estilo eta dantzak elkartzen direla modu gaurkotu batean sustrai hauetako kantak ber-asmatu eta ber-interpre-

tatzeko. Kontzertu/ikuskitzunean entsegu orokorraz gozatzeko aukera izango dugu Usurbilen”.

## Gonbidapenak, aurrez, Lizardin eskuragarri

Emanaldirako gonbidapenak aurrez eskuratu ahalko dira Lizardi liburu dendan. Edo kontzertu egun berean Sutegin. Tosta Bandako Euskal Herriko kideen artean ditugu, Txokoaldeko Txalaparta Txokoa kudeatzen ari den Oreka Tx taldea, Iñigo Egia, Mixel Ducau edota Ixi Jauregi.

# Apirilaren 28an eta 29an, Tximeleta DSS18 txapelketa

Eskolarte mailako txapelketa Donostian jokatu da. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Madrilgo 500 kirolarik hartuko dute parte. Carolina Rodriguez eta Sandra Aguilar gimnasta olinpiarrek ere bertan izango dira. Lehenengoak erakustaldia egingo du irekiera ekitaldian eta bigarrenak masterclass bat eskainiko du izena ematen dutenekin.

Apirilaren 28an larunbata, kirol eta kultura ekintza irekiak antolatuko dituzte Donostian. Miramar Jauregian, zirkoaren inguruko jarduerak; Aieteko parkean, esku oin margoketa erraldoia eta kamiseta diseinua; Saguesen, dantza ikuskizunak; Loiolako Erriberako Memoriaren Lorategiaren ondoan, gimnastika akrobatikoko ikuskizun ezberdinak.



500 gimnasta batuko dira DSS18 txapelketan.

## Alejandro Tapiaren erakusketaz gozatzeko azken egunak

90. hamarkadatik aurrera sortutako paper, olio, eta eskultura lan bilduma ikusgai izango duzue apirilaren 22ra arte, Donostiako Alde Zaharreko Iñigo Kalea 4an kokatuta dagoen Ekain Arte Lanak galerian.

## Ordutegia:

11:30-13:30 / 17:00-20:30 (astartetik larunbatera).

## Informazio gehiago:

ekainartelanak.com

## Pentsiodunen elkarretaratzea, astelehenero

Pentsiodunen astelehenero mobilizatzen dabilta hiriburuetan, Espainiako Gobernuak planteaturiko %0,25eko igoeraren aurka. Duintasunez bizi ahal izatea eskatzen dute, Europako Karta Sozialak finkatua duen gutxieneko 1.080 euroko pentsioa bermatua egotea.

## Astelehenetan, Donostian

Beste hainbat hiriburuetan bezala, Donostian, besteren artean hainbat usurbildar biltzen dituen elkarretaratzea egiten dute astelehen eguerdiko 12:00etan, hiriburuko udaletxe atarian, Alderdi Ederren.



Astelehenetan, eguerdiko 12:00etan batzen dira Donostiako Alderdi Ederren. Argazkia, artxibokoa.

## Emakumezkoen paleta goma txapelketa

Aurreko urtean bezala, aurten ere, Usurbilgo Pilota Elkartek Emakumeen Paleta Gomazko Txapelketa antolatu du. Izena emateko epea apirilaren 27an amaituko da.

Txapelketa honetan edozein emakumek eman dezake izena eta bikoteka jokatu da gomazko pilotarekin. Partidak maiatzean hasiko dira eta finalak, berriz, Santixabeletan jokatu dira.

Apuntatzeko epea irekita dago eta izen emateko azken eguna apirilaren 27a ostirala izango da. Izena emateko 676453176 telefonora deitu behar da edo pagazpe@gmail.com helbidera idatzi.

### Gizonezkoen txapelketa ere maiatzean hasiko da

Bakoitzak bere izena eman behar du eta aurrelari edo atzelari jokatzeko asmoa duen zehaztu. Gero bikoteak txandakatzuz egingo da lehiaketa.



Maiatzean hasiko dira partidak.

### IZEN-EMATEA IREKITA

**“Izena emateko azken eguna apirilaren 27a izango da”**

Antolatzaileek aditzera eman dutenez, “lehiaketa sistema parte hartzaile kopurua araberazehaztuko da. Partida guztiak Aginagan jokatu dira. Finalak Usur-

bilen”.

■ Norentzat: 18 urtetik gorako usurbildarrentzat.

■ Noiz: Maiatzean hasi eta Santixabeletan amaitzeko.

■ Izen-ematea: Apirilaren 20a, ostirala, azken eguna.

■ Izena emateko 626110923 telefono zenbakira deitu edo helbide honetara idatzi: huizip@gmail.com

■ Antolatzailea: Usurbilgo Pilota Elkartea.

## Baxurde Txikiren denboraldia, martxan

Denboraldi betean da Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldea. Apirilaren 7an, Eguesen taldeko proba batean parte hartu zuten. Aurretik, martxoan hasieran, Eibarko duatloian ere lehiatu ziren. Gipuzkoako txapeldunorde amaitu zuen taldeko kide Iñaki Añorga Unanuek. Taldeak Facebook-en duen orrialdetik hartu dugu argazkia.



Dagoeneko lasterketa batzuetan lehiatu dira Baxurde Txikiko kideak.

## Futbol partidak Harane futbol zelaian

### Apirilak 21 larunbata

■ 09:30 Alebin neskek:

-Udarregi A

-Udarregi B

■ 11:00 Infantil mutilak:

-Usurbil F.T.

-Anaitasuna C.D.

■ 16:00 Erregional mutilak:

-Usurbil F.T.

-Segura K.E.

### Apirilak 22 igandea

■ 11:00 Alebin hobekuntza 2006:

-Usurbil F.T.

-Orioko F.T.

## Eskubaloi partidak Oiarde kiroldegian

### Apirilak 21 larunbata

■ 09:30 Alebin mutilak

Gipuzkoa:

Udarregi 5B-Urmieta 5B

■ 10:30 Infantil mutilak

Gipuzkoa:

Udarregi B-Urola B

■ 11:45 Infantil mutilak

Gipuzkoa:

Udarregi A-Bidasoa A

■ 12:30 Infantil neskek,

Gipuzkoa:

Udarregi A-Udarregi B

■ 18:00 Kadete mutilak

Gipuzkoako Kopa:

Usurbil K.E.-Tolosa

### Apirilak 22 igandea

■ 11:30 Kadete neskek

Gipuzkoako Kopa:

Usurbil K.E.-Aloña Mendi

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea

eguneko menuak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

*Usurbil Autoak*  
**MEKANIKA-KARROZERIA**

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Etxea salgai Atxegalden. 4 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Dena berritzeko. 659 921 235

90 m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m<sup>2</sup>-terrazza, 8 m<sup>2</sup> trastelekua eta bertan 33 m<sup>2</sup>-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Atikoa salgai garajea eta trastelekuarekin. Tel. 665 720 913

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalfakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m<sup>2</sup> pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berrituta. 359.000 euro. 679002101.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

## Alokairuan

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informez ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-lokal bat alokatzen da. Kafetegia edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik.

Kaxkoxan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektriko eta itxia.

615744628.

34m<sup>2</sup>ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekabixi 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negozio-garriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Zubietan etxeko lanak egiteko emakume bat beharko nuke. Lan-egun erdian. 695 783 202

Zerbitzari bat behar dugu asteburutarako Artzabal jatetxean eta udaran ordu gehiago. Tarte-ka asteburuak jai egiteko aukerarekin. Garrantzitsua euskara jakitea eta esperientzia izatea. artzabaljatetxea@gmail.com

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziarik. 662 910 181

Interna bezala lan egingo nuke. Esperientziarekin. Paperak eguneratuta. Tel 682 723 520

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak



**Zorionak Aitor eta Gorka!!!** 7 urte egingo dituzue apirilaren 18an. Amarentzako munduko mutilik politenak zarete. Ondo pasa eta muxu handi bana.

**OHARRA:** 2018ko apirilaren 27an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: apirilaren 23an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

## Heriotzak

**Maria Pilar Esquide Otegui**

93 urterekin hil zen apirilaren 12an Usurbilen





zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezela edo garbiketa lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabiltza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Espe-

rientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrek emateko prest

egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesez eta frantsesean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketarako. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenera ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen

da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketarako, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen

naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketarako, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

#### BESTELAKOAK

Urrezko pultsera bat perla txuriduna galdu dugu. Ume batena da, txikia. Aurkitu baduzu deitu; 637 264 941

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahaia, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi ikastolan klase partikularrek emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enorktadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. Telefono zenbakia: 637 974 994

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenera ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitetgia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ihen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztxetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldetgia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 19** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 20** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Larunbata 21** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 22** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Astelehena 23** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Asteartea 24** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteazkena 25** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

## Apirilak 19 - Apirilak 29

**Osteguna 26** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 27** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 28** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 29** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda apirila

## 20 ostirala

■ **Udajolas, izen-ematearen irekiera.** Ordutegia: 10:00-11:00/ 16:00-18:00. Non: NOAUA!ren egoitzan. Xehetasunak aldizkari honetako 2. orrialdeko publizitate tartean.

## 21 larunbata

■ **"Sagarrondotik sagardora" ikastaro zikloa.** 09:00-13:00 Potxoenean.  
 ■ **VI. Dantza Eguna, ikus 18 orrialdea.**

## 22 igandea

■ **Txokoaldeko Erroizpe elkarteko urteko batzar nagusia.** 11:00etan lehen hitzordua, 11:30an bigarrena.

## Apirilaren 26an, "Kalean otso etxean uso" antzezlanaren SuteGIN

Hiru urtetik gorako haurrei zuzendutako emanaldian txotxongiloak, antzerkia, ilusioa eta irudimena nahastu dituzte. Antzezlan dinamiko eta dibertigarria, zer hausnartua emango duena.

"Azken uneko notizia! Azken uneko notizia! Hiru txerri txerriak desagertu dira! Gertaerak ez daude batere garbi, baina otsoak desagertarazi dituela dirudi. Egunkarietan zabaldu da berria! Herri guztiak, otsoa erruduna dela esaten du". Egoera horretan dela, Fernandez eta Fernandez detektibeak ikertzen hasiko dira. Hortxe abiatzen da Usurbilgo Udalak



Patata Tropikala Antzerki Laborategikoaren saioa arratsaldeko 18:00etan hasiko da.

antolatuta, Patata Tropikala Antzerki Laborategiak apirilaren 26an 18:00etan hasita SuteGIN eskainiko duen *Kalean otso etxean uso* emanaldia.

## Ilargia eta egutegi biodinamikoak, 'Sagarrondotik Sagardora' ikastaroan

Alkartasuna Kooperatibak antolaturiko ikastaro praktikoko hurrengo saioa, apirilaren 21ean, 09:00-13:00 artean Potxoenean. "Ilargia eta egutegi biodinamikoak" saioa, Xabier Akizurekin. Aurrez eman izena, bideotatik:

- 943 361 114
- [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com)
- [alkartasuna.eus](http://alkartasuna.eus)



Xabier Akizur zuzenduko du larunbateko saioa.

### Datozenak

#### Nomada (Erein) eleberriari buruzko solasaldia

Euskarazko topaketaren hamaikagarren edizioa antolatu du SuteGI udal liburutegiak apirilaren 25erako. Aitziber Etxeberriaren "Nomada" eleberria aztertuko da, arratsaldeko 19:00etan hasita liburutegian, idazlea bera bertan dela eta Pako Aristik gidatuko duen solasaldian.

#### Apirilaren 28an, kantu-jira

Apirilaren 28an girotuko dute Kaxkoa euskal abestiekin Kantu Taldekoek. Urte hasieratik mantentzen ari diren ohiturari eutsiz, oraingoan ere eguerdian irtengo dira; 12:00etan, Mikel Laboa plazatik.



Eguerdiko 12:00etan abiatuko dira.

**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**  
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza  
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak  
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**ALDAMU**  
**KONPONKETAK**  
 KALE NAGUSIA 10- atzealde  
 943 372 795

**ZALDIGAIN**  
 ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...

[www.zaldigain.com](http://www.zaldigain.com) • [info@zaldigain.com](mailto:info@zaldigain.com)  
 Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
 Fax: 943300045

# OSASUN GIDA 2018



**Irati Ibargoien**  
FISIOTERAPIA ETA OSASUN ZENTROA  
**943 53 92 66**  
Puntapax 68. behe ezk. - USURBIL



**PILATES TERAPEUTIKO PERTSONALIZATUA**  
Errehabilitazioa · Kiral fisioterapia  
Fisioterapia traumatologikoa · Terapia funtzionala  
Fisioterapia neurologikoa · Osteopatia



**USURBIL  
OPTIKA**

Bigarren lente parea doan: lente progresiboetan, irakurtzeko lenteetan eta ikus-urrunekeo lenteetan

2. lente parea doan  
**2x1**  
PROGRESIBOETAN  
IRAKURTZEKOETAN  
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10 • ☎ 943 370 269 • 675 708 654



**Öinutsik**  
p . o d o l o g i a   z e n t r o a  
**943 11 09 54** zubiaurrenea 2, Usurbil

- Azterketa posturalak
- Azterketa biomekanikoak
  - Plantilak
  - Kiropodiak
- (Kailoak, azkazalak, ondoak...)
- Papilomak
- Erreflexoterapia



**Iturraldebotika**  
Tomas Iturralde-botika,  
33/17 PEZ.

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua  
Dermofarmazia  
Produktu homeopatikokoak  
Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95



✓ **OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA**  
✓ Produktu ortopedikoen **alokairu zerbitzua**  
(oheak, aulkak, garabiak...)  
✓ Arreta pertsonal eta **espezializatua**

✚ Teknikari ortopeda kontsulta   👤 Aholkularitza   🏠 Produktu gama zabala

Lizarralde  
**ORTOPEDIA**

Kazkazuri 1 baxua, OIartzun - 943 543 585/ 688 678 583  
[www.lizarraldeortopedia.eus](http://www.lizarraldeortopedia.eus)

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA   R.P.S 28/17

Nagusia 10, 1.C4 **943 37 08 78** USURBIL

# Usurbil gozatu!

Ugartondo



Zatoz  
ingurune  
paregabe hau  
ezagutzera!

2 logela  
**219.000 €**

-tik aurrera\*

3 logela  
**260.000 €**

-tik aurrera\*

Garajea eta trastelekua barne



**jaureguizar**

943 579 366

619 508 392

Kale Nagusia, 10 · Usurbil

[www.jaureg.com](http://www.jaureg.com)